

VIDAL QUADRASEN ARABERA, ERABAKIA «ALDERDIAREN DOKTRINAREN AURKAKOA DA»

Kataluniako PPK 8 urte arteko hizkuntz murgilketa onartu du

CiUren presioak arrakasta izan du eta, azkenean, PPK onartu egin du Kataluniako eskoletan hizkuntz murgilketa egitea. Alderdi popularrak, hala ere, 3 eta 8 urte arteko haurrentzat onartzen du sistema eta hortik aurrera gaztelaniaz ikasi ahal izatea proposatzen du.

Erredakzioa / Donostia

JOAN DEN ostiralean Generalitateko jauregian zortzi orduz CiUko buruzagiekin izandako elkarrizketa luzearen ondorioz, PPK aldatu egin du hizkuntzaren gaian zuen jarrera. Aleix Vidal Quadrasen garaian, Kataluniako eskoletan lehen irakaskuntza osoa katalanez egitearen aurkako zen PP.

Horren orde, gurasoek seme-alaben hezkuntzarako nahi zuten hizkuntza aukeratzea proposatzen zuen. Joan den astean bertan, katalanaren lege berria eztabaidatzen ari den Kataluniako Legebiltzarreko taldean, Josep Curtok eskatu zuen zein hizkuntza erabili ikastetxeetako zuzendaritzaren esku uzteko. Proposamen horrek sekulako eztabaida sortu zuen, beste taldeen iritziz haurrak hizkuntzaren arabera banatzea ekarriko duelako.

Alderdiko zuzendaritzak eskatuta, orain Kataluniako PPK onartu egin du 3 eta 8 urte arteko umeek irakaskuntza osoa katalanez jasotzea. Ordutik aurrera, berriz, erabakia ikastetxeek hartzea proposatu zuen atzo PPK lege berria aztertzen duen ponentzian.

Kataluniako PPKo zuzendaritzaren jarrera aldaketa ez da guztien gustukoa izan alderdi eskuindarraren barnean. CiUrekin borroka gogorregia izateagatik alderdiko lehendakartzatik baztertutako buruak, Aleix Vidal Quadrasek, kritikatu egin zuen oraingo zuzendaritzak hizkuntz



J. C. CARDENAS / EFE

murgilketa onartzea. «Erabaki hori hartzea PPren doktrinaren aurka joatea da eta alderdian ez da onartzen. Murgilketa onartzearen pareko izango litzateke PPK bankuen nazionali-

zazioa ontzat hartzea edo IUK kanporatze libreaki men egitea».

Katalanaren legea izango dute gaur eztabaidagai Jordi Pujol-ek, Generalitateko lehendakari-

Gose greba katalanaren batasunaren aurka

Vicente Ferrerrek, senadore erregionalista valentziarra, astebeteko gose greba hasi zuen atzo, katalanaren batasunaren aurka protesta egiteko. Gose greba Valentziako Komunitatearen Aurrerapenerako Ekimena alderdiko egoitzan egingo du Ferrerrek, eta datorren asteartean, hilak 20, bukatuko da. Hain zuzen ere, egun horretan eztabaidatuko ditu Espainiako Kongresuak katalanaren batasuna onartzeko Pilar Rahola independentista katalanak eta IU-ICK aurkeztutako katalanak eta katalana bi hizkuntza dira eta «hala onartzen du Valentziako Estatutuak». Ferrer senadoreak alde egin zuen Union Valenciana (UV) alderditik, baina haren alderdi ohia ere kezkatutako dago gai honekin. Jose Maria Chiquillo UVko diputatuak PPri mehatxu egin zion atzo eta esan katalanaren batasunaren aldeko botoa ematen badu erregionalisten sustengua galduko duela Valentziako Generalitatean.

riak, eta Josep Lluís Carod-Rovirak, ERC alderdi independentistako idazkari nagusiak. Pujolek bil-tzeko eskaera egin dio Narcis Serra PSCko buruzagari ere. X

Prefetak gutxitu egin du Vingrauko harrobiaren esplotazio eremua

Herritarrek proiektua erabat bertan behera utz dadin nahi dute

Allande Sokarros / Baiona

VINGRAU herriko (Ipar Katalunia) bizilagunek garaipenerako lehen urrats bat bezala hartu dute Ekialde Pirinioetako prefetak hartu berri duen erabaki bat. Haren arabera, herri honetako lurretan Omya sozietateak esplotatu nahi lukeen gisu harrobiaren zabalatasun eremua gutxituta izango da. Alabaina, proiektu horri erabateko arbuioa dioten Vingrauko herritarren % 85ak egingai hori behin-betikotz bertan behera uzteko exijitzen dute.

Zazpi urte bada Vingrauko herriak oztopo egiten diola harrobiaren eremu zabaltzeari eta defentsa elkarte batean bildutako herritarrek Omya enpresako lan tresnak hurbil daitezten galarazten dutela. Harrobi hori ireki zen duela hogeit bat urte baina Suitzako Pluess-Stauffer-Hauechst sozietate multinazionalaren filiala den Omya enpresak eremua handitzeko baimena lortu zuen administrazioarengandik 1990. urtean. Erabaki horri berehala uko egin zioten herritar gehienek, alde batetik herriaren ekoizpen nagusia den mahastizaintzari kalte handia egingo ziolakoan esplotazio eremuaren handitzeak, eta, bestetik, toki horretan bizi den Bonelliko arrano espezie oso bakanaren geroa arriskuan ezarriko duelakoan.

Une gogorrek pairatu arren, hala nola jandarmek gogor ekin zutelarik euren aurka 1995ko urrian, Vingrauko herritarrek tinko eusten diote

Alcasserko krimenaren epaiketak jarraitu egingo du

Efe / Valentzia

VALENTZIAKO Entzutegi Probintzialak atzo ez zuen onartu Alcasserko krimenaren epaiketa eteteko akusazio partikularrek egindako eskaera. Hortaz, epaiketak aurrera jarraitu zuen Miguel Ricart akusatuaren deklarazioarekin.

Ordu eta erdiko deklarazioan, Ricartek ukatu egin zuen 1992ko azaroan Miriam Garcia, Desiree Hernandez eta Antonia Gomez, 14 eta 15 urteko neskatokak, bahitu, bortxatu eta hil zituela. 1993ko urtarrilean, hiru nesken gorpuak azaldu zirenean, krimenak «Guardia Zibilak egindako torturen ondorioz» aitortu zituela ziurtatu zuen Ricartek. Akusatu nagusiak Mauricio Angles, ihes egindako Antonio Anglesen anaia, inplikatu zuen krimenean. X

Telefonicaren telebista irailean hasiko da emititzen

Via Digitalek 35 kanal eskainiko ditu hilean 2.500 pezeta ordaintzearen truke

Efe / Madril

IRAILEAN hasiko da emititzen Telefonicaren inguruan osatutako satellite bidezko telebista plataforma digitala. Telebista berriak Via Digital du izena eta 35 kanal eskainiko ditu, hilean 2.500 pezeta ordainduz gero.

Pedro Perez Via Digitaleko presidentea atzo aurkeztu zuen plataforma, egoitza izango duen Madrilgo Ciudad de la Imagen gunean. Via Digitalen akzio-dun nagusia Telefonica izango da, akzioen % 35ekin. TVEk % 25,4 izango du eta beste horrenbeste Televisak, Grupo Recoletos informazio taldeak —Marca— % 5,

Telemadriderik % 4, Valentziako Canal 9k % 2 eta TVGk % 2. El Mundo egunkariak, COPEk, Las Provincias-ek eta Leongo talde batek % 0,25 izango dute bakoitzak eta % 0,1 Época aldizkariak.

Via Digitalek multicrypt aparailua erabiliko du satellite bidez iristen diren seinaleak etxetan dekodetzeko. Perezek azaldu zuenez, dekodetzailer hori da «etorkizuneko», beste telebista plataforma batzuek erabil baititezakete. Dekodetzailer hori, hala ere, sortu berria da eta oraindik ez da inon erabiltzen.

Perezek arabera, plataformaren helburua da 2000. urterako milioi bat abonatu lortzea. Hel-



Pedro Perez, Via Digitaleko presidentea, atzoko agerraldian.

EFE

burua lortzeko, hasiera batean behintzat, Via Digitalek ezingo ditu Espainiako Ligako futbol partiduak eman, Ligaren gaineko eskubide guztiak Canal Satellite lehiakidearen Audiovisual Sport

sozietateak baititu. Hain zuzen ere, Perezek jakinarazi zuen eskaintza bat egin diola Audiovisual Sporti, zenbait partidu per view sistemaren bidez Via Digitalek eskaini ahal izateko. X